

Euskaltzain Jauna, agur;

Batzarretara joaten ez geranok berandu jakiten doguz an erabilitako barrien zertzeladak. Urrengo batzarreko deia artzen dogunean, iru edo lau egun lehago, Baiña "Prensa bulegoaren" agiri ta zurrumuriak ariñago zabaltzen dira; orregaitik ez naiz arritu "La Voz de España" (29-IV-72) dalako erderazko izparringian, Jorralaren 28'gneko batzarren gora-berak irakurtzean.

La cuarta y última de las cartas leídas por el secretario es del Sr. Arenaza, que heca serocopiada. En dicha carta, el Sr. Arenaza pregunta que Academia puede exigir a los escritores que escriban de una forma o de otra. Pasa después a un ataque personal al Sr. San Martín, diciendo que actúa en sus asuntos como si fuera la Academia.

La carta del Sr. Arenaza fue leída por el propio San Martín, quien, ante todos los académicos, observa que el Sr. Arenaza le acusa, sin aducir una sola prueba. Por otra parte —sigue diciendo el señor San Martín—, Arenaza, que es académico, no asiste a las reuniones y se dedica a desprestigiar la institución desde la revista "Agur". Afea el proceder y solicita un voto de censura, por acusación sin aportación de pruebas al secretario, por difamación a la Academia a través de una publicación, cuando si algo tiene que decir a la institución y sus miembros, tiene pleno derecho de hacerlo en las reuniones.

euskaltzain iritxi txikien gaiñetik ikusi nai izatea, iraiñezkoa ete-da?

Ez dot, ez, iñoiz, Euskaltzaindiaren aurka ezer egin, baiña bai Euskaltzaindiaren izenean egiten diran uts eta giza-lege bakokerien aurka... ala, ez ditue egiten?

Orrez gaiñera, ez nuen Euskaltzaindiarentzat idazkirik bialdu, banan-banan euskaltzain bakoitzari baiño. Zergaitik? Nerez minduta nengoala adierazoten nuelako, ta ez arrazoi barik. San Martín jaunari, berari, ez neutsan idazkirik bialdu... zelan izan zan ba, bera, batzarrean irakurle? Nork emon eutsan idazkia ta agirian irakurtzeko baimenik?

Eta gero "voto de censura" dalako ori eskatu ei-eban... nor da baiña jaun ori? Ta zergaitik? Arrazoi burduñekin beretzat eskatu nelke beste ainbeste; neu izan naiz, besteen aurrean iraindua-ta. Dana dala, argi geratu bedi, bein eta betiko, Euskaltzaindia ta euskaltzainiak banantzen ditudala, ta lengo iritzietan jarraitu; San Martín jaunak bere burua ta Euskaltzaindia bat egiten dituala, ta abar.

"Fruebak" nai ditu? Ona emen bat, aldi artan bere "publikoaren" aurrean ni nabarmentzeko egiña:

Orain urte bi, Bilbo'ko "Hoja de Lunez" dalakoan, alkar-izketa bat egin eusten. Neure iritziak emon nebazan, zorionean... Laster erantzun eban "Idazkaritzak" ni nabarmendurik, ez baiña Lendakari jaunaren edo beste euskaltzain osokoen baimenarekin! Lekuona jaunaren eskaria artu nuen ta Euskaltzaindiaren onerako ixildu nintzan. Bialdu neutzuezan "fotokopi" batzuk bere garaian.

Beste alde batetik, ez naiz Euskaltzaindiko batzarretara joaten, egia da, baiña ez naiz ni bakarra. Lan egin bearrak estatutzen gaitu bear dan baiño geiago, ta iñoiz oporrik artu ba'dogu, ta batzarretara azaldu ba'gara, ondoreak ez dira atsegiñak izan. Aspertu naiz beste askoren antzera:

Bein, idazkaritzaren "proposamenduz" izendatze barriak ziralata-ta, Donosti'ra joan nintzan. Euskaltzain osokoak izan zouduen batzarrean, idazkaritzaren "pro-

... posamenduak" onarturik, azken aldiko euskaltzain berrak izendatu zunduezan. Gero, batzar orokorrean, izenak emon euskuzan San Martin jaunak. Bizkai'tik Enbeita jauna izendatua izan zan. Nik, nere iritzia agertu nuen: Da-zirala Bizkai'an beste jaun batzuk izendatutako orron aña meritu ebezenak, Mikel Zarate, J.A. Retolaza, Klaudi Gallastegi eta abar.

Idazkari jaunak: "Durak zirala botodunak eta euren erabakia eskubide osoakin artu ebela" erantzun eustan, eta aurrerantzean euskaltzain izango zirala arlo bakoitzeko utsunok bete al-izateko... Enbeita jauna, Bizkai'ko alfabetatze kanpainan" buru izateko, alegia.

Ez gendun, guk, gure iritzia emoteko erarik izan (batzar aren aurretik beintzat; gerokoa alperrik izan zan) baiña ona emen arrigarriena!:

Urrengo illeko agirian irukurri genduanek, "Bizkaiko alfabetatze kanpaina"rako buru, Quintana jauna agertzen zan izendatua! Idazkari jaunak jakingo du zergaitia, ez dot uste ba, beste inork dakianlik. Dana dala, Kili-Kili'k egiten ebana eta egiten dauana, ez ete-da "alfabetatzea"?

Bazkal-ondoan, batzar aren egunekoan, San Martin'ek, an ziran euskaltzainen aurrean esan zituanak gogoan izango ditu, ziurki: Euskaltzaindiko erabakiak "talde" berezi batzuen menpeko lez agertzen zituan... neri h'ak iruntsi eragin naian... Gogoratzen?

Nik, bai beintzat, gogoan ditut, eta gertu gaitiera edonun azaltzeko bel Beste batzar gogoangarri bat, Retana jaunari "boikoterakoa" izan zan. Boikota giza-lege bakoa ta bakoitzaren buru-jabetasunaren aurkakoa zala, esan ba'gendun, esan... entzun genduzan entzutekoak! Ona emen, urte bi garrenean, gauzak atzekoz-aurre; edo iritzia makulak... edo merkeak. Orduantxe artu nuen inoiz ez joateko erabakia, baiña onek ez du esan nai, zerbait gaitiki ikusten ba'dot, kritikea egiteko eskubidea galdu dodanik; ezta gitxiagorik ere. San Martin jaunak, ez ditu gauzak orrela ikusten... baiña alperrik!

Ez da eskutitz luze au parka-eskekoa, ez. Ni, lengoan nago. "Voto de censura" dalako ori aurrera eroten ba'dozue, bear dan aña "quorum" izango dala uste dot. Daitzkoa ba'litz. neuk jakingo dot zer egin. Baiña "quorum" eta arrazoiak, onek besteek baiña ugariagoak eta sakonagoak izango dirala uste dot:


Idazkariak irukurri du araudi berria. Eta adierazi du, lehen puntuan, Arantzazu-ko erabagiaren araberan jartzea, gallegoak Real Academia Gallega-ren araberan eskatzen duten baldintza kontuan harturik egina dala, eta ortografia partean bokalarteko H bakarrik esketsoi dala Arantzazuko agirian. Araudi berria onhartzan da.

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1972ko apirilaren 4an, geizeko hamar t'erdietan, batzar berezian bildu dira; Villasante buru, Haritschelhar buruzerzko Arrue, Diharce, Irigoyen, Lojendio, Mitxelena, eta Satrustegi, San Martin idazkari dala. Araudi berrieztatzeko batzordeko den aldetik Lizundia laguntzailea ere bertan da.

Ezin etorria adieraziaz, beren poderioak emanaz idatzi dute: Epphe-rra, Lafon, Dassance, Laffite jaunak Haritschelhar jaunari; Larzabal jaunak Villasante jaunari eta Erkiaga jaunak Irigoyen jaunari.

Besterik gabe, agur zintzoena,


ARRIAZA'TAR JOLU.-

Oorre;Eskutitz au(aurrekoa lez) ez da bialtzen batzar nagusian irakurtzeko, zeuetariko bakoitzak jakiteko baino. Beraz, "voto de censura"ra ez bal'ozue, bota arren zure iritzia.